

PROIEKTUAREN DESKRIBAPENA

Gu emakumez osatutako Lasarte Oriako, Oriarte institutuko ikasle talde bat gara. Sortuko dugun enpresa, telebista kate bat izango da, GAKM izeneko. Bertan emakume zein gizonen kirola ikusteko aukera izango dugu. Enpresa hau sortzeko gaur egun dauden arazoetan oinarritu gara, adibidez, telebista edo irratia pizten dugun bakoitzean mutilen kirolari buruz ari dira etengabe hizketan eta emakumearen kirola bigarren planoan uzten dute. Horretarako, emakumearen kirola maila berean egoteko sortu dugu telebista kate hau, bertan kirolari eta kirolariei buruzko informazioa eta partidoak igorriko dira.